



DANI BLANCO

ARGIAren irakurleek bista arazoak al dituzte?



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

ARGIAko harpidedunek okerrago ikusten dute ez-harpidedunek baino. Ez, ez da ARGIAk egindako azterketa baten emaitza; nire teoria baizik. Edo agian bigarren teoria zehatzago batera jota, Net Hurbilen irakurlea jende edadetua dela ere ondoriozta genezake. Esango didazu, bestela nola uler daitekeen optika batek ia berrogeita hamar urtez astekarian publizitatea jartzea! Baina tira, arrazoia edozein izanik ere, Zinkunegi optikak hor merkatua ikusi du (optika-koak merkatua ikustea... ados, txistek ere onartzen dira), seguru!

Zinkunegi familiako hirugarren generazioa hasia da optikan lanean, eta hark hartuko du aitona irekitako negozioaren testigua. Eta denda ireki zutela adina urte izango dira hortxe-hortxe gurean iragarkia jartzen hasi zirela. 1967-68an hasi eta gaur oraindik ere aldizkarian tarte bat izaten du beti. Donostiako familia euskaltzalea garai hartarako jabetzen zen euskal prentsari eman beharreko babesaren garrantziaz, eta garbi zuten orduko *Diario Vasco* eta *La Voz de*

España hedabideetan ez zuela publizitate jarri nahi. *Zeruko Argiara*, beraz. Euskaldun giroan eroso, bezeroak ere inguru horretatik erakarri nahirik-edo.

Onartu digute, baina, euskal hedabideei babesa ematearren soilik ez dutela jartzen iragarkia; gustuko dutela ARGIAk egiten duen kazetaritza, lurraldetasunari zaion errespetua, eta ez dela kasualitatea laster aldizkariaren mendeurrena izatea. Irakurlerik badagoen seinale. Beste zenbait hedabideetan ere jarri izan dute zinkunegitarrek antzizioa: *Euskaldunon Egunkarian* eta *Herri Irratian*, esaterako.

Eta egia esatea nahi baduzu, irakurle, irratierak deskolokatu nau pixka bat, nire hasierako teoria goitik behera aldatzen baitu. ARGIAren irakurlea bakarrik ez, bista arazoak dituena orokorrean euskal prentsaren irakurlea izatea kalkuluetan sar zitekeen; baina irratien entzulea? Non dago hor bistaren papera?

Bromak alde batera utzita, eskerrik asko Zinkunegi familia, horrenbeste urtez ARGIAren parte izateagatik. ■

Gogorra izango da, baina eutsi!

ARGIAk astebetez atsedean hartuko du. Apirilaren 3ko alerik ez zaizu buzoian agertuko. Ziur irakurri gabeko artikulua interesgarrikerik pilatu zaizula mahaian. Aukera ederra, denbora horiei eskaintzeko! Apirilaren 10eko zenbakiarekin itzuliko gara, indarberrituta.



Ondarru eta Herbehereetako lagunak, ARGIAra eginiko bisitan

ARGIAko harpideduna da Ondarruko Zubi Zahar ikastola. Herbehereetako ikasleekin bizi izan dituzten egunetan, besteak beste ARGIAra egin dute txangoa, komunikabide bateko lana barrutik ezagutzeko. Ingelesekin egin zuten bisita gidatua ARGIAren ingelesezko edizioarekin tematuta dabilen *journalistak*.

Sarean arrantzatua

